



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO UDALAREN PLANEAMENDUAREN AHOLKU BATZORDEAK 2023/06/30EAN EGINDAKO BILKURAREN AKTA

Azpeitiko Hiri-Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa Garmendialde 2. Hiri gintza eremuko 2.2. «Perdillegi» azpieremuari eta «San Martin» 2.3 JZ-ri dagokionez

Bileraren data: 2023ko maiatzaren 30a.

Lekua: Udaletxeko bosgarren solairua.

Hasiera-ordua: 18:00ak.

Bilera honetara deituak izan dira Udalaren antolakuntzaren arabera zinegotzi eta langileak, Plangintzan aritu den talde teknikoaren ordezkaria, eta honako elkarteak:

- a) ARATZ ERREKAKO, LASAO, URRESTILLAKO, NUARBEGO, SANJUANDEGIKO, LOIOLAKO AUZOA (herriko auzoetako ordezkariak)
- b) IRAURGI HLBHIP, UROLA IKASTOLA BHI, AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI HLHI, AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI KOOP HLBHIP (herriko ikastetxeetako ordezkariak)
- c) eta d) ELA, LAB, EHNE eta ENBA SINDIKATUAK (Sindikatu orokorrak eta nekazal arlokoak)
- e) ELKARTU Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten pertsonen federazioa koordinatzailea (minusbaliatuen elkarteak)
- f) EMAKUME ELKARTEA (Emakumeen elkarteko ordezkari bat)
- g) JAUIZIKA HEZIKETA ELKARTEA (Gazte elkarte ordezkaria)
- h) BERTAN Azpeitiko Merkataria Elkarteak (Dendarien elkarteak)
- i) ANTXIETA ELKARTEA (Ondarearen kontserbazioan interesa duen elkarteak)
- j) BAIGERA -jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak- (giza elkarteak)/ LAGUN ONAK MENDI BAZKUNA, ILUNPE PELOTA ELKARTEA (Kirol Arloko erakundeak).
- k) UROLA BIZIRIK (Ingurumen arloko erakundeak)
- l) AZPEITIKO ENPRESARIEN ORDEZKARIA(enpresa arloko ordezkaria) eta TEKNALIA (aurretik Cidemco)



Horrez gain, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren eta web orriaren bidez herriko gainontzeko elkarteak deialdia egin zaie Aholku Batzordean partehartzeko (GAO 2023/05/23 eta web orrian)

Deialdiarekin batera partehartzaile guztiei dokumentazio teknikoa bidali zaie, bai plana eta ingurumeneko dokumentua ere, euskarari dagokion irismen dokumentua eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren irismen dokumentua ere.

Bertaratu dira:

- Lehendakaria: Nagore Alkorta Elorza.
- Lehendakariordea: Leire Goenaga Uzkudun.
- Zerbitzu Orokor eta baserrien batzordearen zinegotzi titularra: Aitor Bereziartua Larrañaga.

- Parekidetasun batzordearen zinegotzi titularra:
- BILDU taldeko zinegotzia:
- EAJ taldeko zinegotzia:
- Auzo elkarteak:
- Herriko ikastetxeak:
- Sindikatuak:
- Ezgaitasun elkarteak:
- Emakume elkarteak: Miren Odriozola
- Gazte elkarteak:
- Dendarien elkarteak: Xabier Aldalur
- Ondarearen kontserbazio elkarteak: Luis Juaristi
- Giza elkarteak: San Martin Fundazioaren langilea den Olatz Isasmendi, Baigera
- Elkarteko ordezkaria den Patxi Alzibar
- Ingurumen arloko elkarteak
- Enpresarien arloko elkarteak

Teknikariak:

- Arturo Rivas Martín, udal arkitektoa.
- Plangintza Orokorra idatzi duen talde teknikoko Santi Peñalba Garmendia.

Idazkaria:

- Olatz Eizagirre Orbegozi, Udalaren idazkaria.

Bileraren gaia: AZPEITIKO PLANEAMENDU OROKORRAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONARPENA JASO DUEN DOKUMENTUARI TXOSTENA EGITEA (Udalbatzak 2023/04/03 egindako bilkuran onartua).

Bileraren gaian sartu aurretik agertu direnei eskerrak eman zaie.

Talde teknikoko arduraduna de Santi Pañalbak hitza hartu eta planaren inguruabarrak eta helburuak azaldu ditu, eta baita prozedura honetan eman diren pausoak ere.



Planaren eremua bi Hirigintza-azpierzemur osatzen dute, biak Azpeitiko hiri-eremuan sartuta eta elkarren artean 300 bat metro bereizita. 13.215 m²-ko azalera du guztira, Perdilegiren (7.125 m²) eta San Martinen (6.090 m²) azalaren baturatik ateratzen dena, eta hiri-lurzoru gisa sailkatzen da.

Planaren xedea Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aipatutako azpierzemur horietarako zehaztutako erregimen urbanistikoa aldatzea da. 2013. Urtean onartutako Planak Perdilegin bizitegi-garapen berria aurreikusten zuen eta San Martinen zuzkidura-garapena berria.

Udalak proposatu du indarreko Hiri-Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) aldatzea, "San Martín" 2.3. JZean aurreikusitako ekipamendu-erabilera "Perdilegi" 2.2 azpierzemura lekualdatzeko eta, aldi berean, "Perdilegi" 2.2 azpierzemuan aurreikusitako bizitegi-erabilera "San Martín" 2.3. JZra lekualdatzeko xede bikoitzarekin, aplikatu beharreko Plan Hidrologikoan xedatutakoa kontuan hartuta. Adinekoentzako ostatu-premiei eta babes publikoko etxebizitza- premiei eman beharreko erantzunari buruz egiten den udal-plangintza berriari erantzutea du xede.



Azpeitiko Udala

Proposatzen den soluzioak aukera emango du laguntza-ekipamenduko partzelak bizitegi-espazioak izan ditzan Perdillegin bere solairu guztietan, uholde-arriskua hain handia ez den egoeran; San Martinen, aldiz, etxebizitza-erabilera goiko solairuetan egongo da. Beheko solairuko erabilerak kasuan kasuko egoeran egin daitezkeen erabileretara mugatuko dira eta, gainera, behar bezala konponduko da sotoetako solairuetarako irisgarritasuna, garaje eta bestelako erabileretarako. Horrela, adinekoentzako egoitza arloko tokiko ekipamendua berritzea eta egoera berrira egokitzea eta, aldi berean, eskaintza handiagoa egitea planteatzen da.

Ezarritako bizitegi-eraikigarritasuna (11.300 m²(s))egokitzea eskatzen du horrek. Nolanahiere, ondoriozko eskaintza HAPOn kalkulaturako gutxieneko balantzea bermatzen duena baino txikiagoa ez izatea planteatzen da. Horren arabera, Perdillegin BPESen (babes publiko etxebizitza sozialak) 281,20 m²(I). gutxienez, eta BPETen (babes publikoko etxebizitza tasaiuak) 6.693,20 m²(t), gutxienez, behar ziren.

Helburu horri erantzuten dioten bi alternatiba (1 eta 2) planteatu dira xede horretarako. 1. al- tematiban, Perdillegi azpierzemua ekipamendutarako erabiliko da oso-osorik; 2. alternatiban, berriz, zati bat bizitegitarako ere erabiliko da. Hala, 1. alternatiban, erabilera nagusia bizitegi- erabilera izango duten 7.200 m²(s) antolatzea proposatzen da, 2. alternatiban, berriz indarreko HAPOn aurreikusitako 13.000 m²(s)-ko eraikigarritasun osoa mantenduko DA, Perdillegi eta San Martin azpierzemuen artean banatua. Kasu batean zein bestean, bi azpierzemuen hiri- lurzoruaren sailkapenarekin jarraituko da. Ondoriozko bizitegitarako hirigintza-eraikigarritasuna txikiagoa da 1. alternatiban baina, kasu horretan, handitu egin da adineko Pertsonak bizitzeko ekipamenduari lotutako partzelaren neurria.

*Talde teknikoaren arduradunak azalpen guztiak diapositiba bidez azaldu ditu adierazgarriagoa izan dadin.

*_*_*_*



Aholku batzordekideek hainbat galdera egin dituzte planaren exekuzioari buruzko programa jakiteko, eta Lehendakariak argitu du lehenik eta behin hirigintzako dokumentua onartu behar dela, eta zehaztu du Udala aldi berean eskumena duen Aldundiarekin lanean ari dela ekimen honen finantzazioa bermatzeko.

Eta Aholku Batzordearen kideek HASIERAKO DOKUMENTUARI aldeko irizpena eman diote aho batez. Bere izaera derrigorrezkoa eta ez loteslea izango da, Udalak 2008ko ekainaren 5an onartutako Azpeitiko Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen Araudiaren arabera (19.8 artikulua).

Espedienteak dagokion tramitazioa jarraituko du. Esan behar da jendaurreko denboran ez dela alegaziorik aurkeztu. Bere aldetik administrazio sektorialak beren txostena egiten ari dira, eta inolako atzerapenik ez badago Plan Orokorren lehen aldaketari dagokion proposamena Estrategia eta Hirigintza batzordean irizpidetu eta Udalbatzari emango zaio, honek dagokion erabakia hartu dezan behin behineko izaeraz. Ondoren Ingurumen Sailera bidaliko da espedienteak, administrazioak bere txostena egin dezan. Udalbatzari dagokio behin betiko onarpena ematea.

Eta beste gairik ez dagoenez aztertzeko, bilkurari amaiera eman zaio 19:00 orduak direnean.

